

Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak III



Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren aukeraketak III

■ Inaugurazio eguna: 2012ko azaroaren 20an

■ Komisarioa: Alvaro Rodriguez Fominaya

■ Kokapena: Aretoak: 103 eta 105

- Erakusketa-ziklo baten hirugarrena dugu hau, eta 2013 urtera arte Museoaren Bildumako artelanak gaika azalduko ditu. Gaur egun, Bildumak 70 artisten 124 lan ditu.
- Oraingo honetan, erakusketak "Pop art"-eko artista nagusien lanak bistarazten ditu; baita mugimendu honekin harreman kontzeptuala edo biografikoa izan duten artistenak ere, hala nola, Andy Warhol, James Rosenquist, Gilbert & George, Sigmar Polke, Robert Rauschenberg, Jean-Michel Basquiat eta Alex Katz.

Guggenheim Bilbao Museoak *Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak III* aurkeztuko du. 2013ra arte egingo den erakusketa-ziklo baten hirugarrena, bere helburua da publikoari Museoaren Bildumaren aukeraketa bat erakustea, beti ere bere testuinguruan jarrita eta publikoari ikuspegi osoa emanda.

New Yorkeko Solomon R. Guggenheimen Arte arduraduna den Alvaro Rodriguez Fominayak komisarioa dela, erakusketak Pop arteko artista nagusien lanak bistarazten; baita arte garaikideko mugimendu historiko honekin harreman kontzeptuala edo biografikoa izan duten artisten obrak ere. Era berean, erakusketak agerian ipintzen du zein zaila den Pop Artearen ezaugarri nagusiak definitzea. Horretarako, mugimendu horren mugak pasatzen dituzten zenbait lan erakusten dira.

Erakusketa beste bildumetakoak diren sormen lanekin -bideoan eta zineman eginak- osatzen da, bisitariak uler dezan zeinen konplexua den egile hauen jardun artistikoa, pintura-euskarrietatik haratago.

Erakusketa 103. aretoan hasten da, **Alex Katz**-en (Brooklyn, New York, 1927) *Irribarreak* (*Smiles*, 1994) sailarekin. Tamaina handiko 11 mihisez osatutako artelan hau lehenbiziko aldiz aurkeztuko da, Bildumarako duela gutxi eskuratu ondoren.

Errusiar immigranteen seme Alex Katz bere belaunaldiko artista esanguratsuenetako bat da. Emakumeen 11 erretratu dira. Hondo ilun eta neutroa dute, eta emakumeak irribarrez daude. Bere ohiko estilo piktorikoan daude eginak, bolumetriarik gabe. Sorta honetako obra batzuetan, modelo batzuk Katz-en inguru hurbilekoak dira, Ada Katz bere emaztea, esaterako; beste batzuetan, modelo horiek erraz ezagut daitezke, ikusle liluratuen begiradetara ohituak dauden pertsonaia ospetsuak; horren adibide dugu Lauren Hutton aktore estatubatuarra. Nahiz eta emakume horien izenak obren izenburuan agertu, erretratu hauen bitartez Katzek ez du haien nortasuna irudikatu nahi, baizik eta gogoeta sakon bat egin irudien izateari buruz, hauen errepresentazio eta pertzepzioari buruz, hain zuzen. Osagai bera -irudi eta hondo neutroa- eta keinu bera errepikatuta, artistak gonbite egiten digu ez bakarrik subjektuari arreta jar diezaiozun, baita irudi horien inguruko esperimentazio piktorikoari ere.

Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren Aukeraketa III-k 105. aretoan jarraitzen du, Jean-Michel Basquiat, Gilbert & George, Sigmar Polke, Robert Rauschenberg eta Andy Warholen artelanen aukeraketa batekin.

Jean-Michel Basquiat (Brooklyn, New York, 1960), artista estatubatuarra eta graffitia ezagutarazi zuena, erakusketan honetan dago bi lanen bitartez. Obra horiek funtsezkoak dira 1980ko hamarkadan zehar egin zuen bere pintura ulertzeko. Basquiatek bi piezak bere ibilbidearen momentu garrantzitsu batean sortu zituen: Artista modura nabarmendu ondoren eta bere garai emankorrenera heldu baino lehen. *Moises eta egiptoarrak* (*Moses and the Egyptians*, 1982) obra Bibliako gertaera bati buruzkoa da, eta, aldi berean, Afrikako Historiarekin izan dezake zerikusia. Konposizioaren erdian, Moisesen profila bereizten da, lerro zuri batzuek iradokita. Lerrook bat-batean eta nahigabe egindakoak direla ematen dute. Zuriak inguratzen ditu legearen taula erraldoiak, eta profetaren profilaren inguruan ere zabaltzen da tanta eta jario espresibo moduan.

Umoreak, ironiak eta primitibismoak definitzen dute *Napoliko gizona* (*Man from Naples*, 1982), indarrez betetako pintura. Titulua asto gorriaren buru gainean idatzitako esalditik hartu zuen. Eta nahiz eta hainbat inskripzioz, kolore orbanaz, zirriborroz eta oinarritzko zeinuz inguratuta egon, astoaren konposizioa nabarmentzen da irudi totemiko baten antzera.

1967an, **Gilbert-ek & George-k** (Dolomitak, Italia, 1943, eta Devon, Ingalaterra, 1942), diziplina anitzeko artista ospetsuek, elkar ezagutu eta elkarrekin lan egiten eta bizitzen hasi ziren. Harrezkero, hainbeste batu dituzte euren identitateak, non ezinezkoa den batzaz pentsatu bestea gabe. Ez dago, gainera, bizitzaren eta artearen arteko bereizketarik; haiek dira haien artelanak.

1970ko hamarkadaren erdialdera, sareta-formatua, arte moderno goiztiarra gogora ekartzen duena, hartu zuten haien argazki lanetarako. Eta ohitura horri eutsi diote gaurdaino. 1980ko hamarkadaren hasieran, argazki-collageak kolore biziz tindatzen hasi ziren, elizetako beirateen tradizioa alaiki gogora ekarriz. *Esnatzen* (*Waking*, 1984) itzelean, artistak imajinaren erdi-erdian daude, kolore biziko eta simetrikoki kokatutako hainbat giza irudiren artean. Haien aurpegiak katamaloak dira, larriminezko ikara irudikatuz bezala: gaztarotik helduarora igarotzea, hori eman bailezake aditzera haien irudiak hiru eskala desberdinetan errepikatuta agertzeak.

1970ko hamarkadan, **Sigmar Polkek** (Oels, Silesia Beherea, egun Olenisca, Polonia, 1941), berrogei urte luzetan egungo artea itxuratu zuen oso obra konplexua sortu zuenak, argazki- eta film-sail bat egin zuen Afganistan, Brasil, Frantzia, Pakistan eta AEBra egindako bidaien inguruan. Ondoren, erretratuak 1980ko hamarkadako lanetara egokitu zituen. Pinturarekin nahastu zituen ehun sintetiko gardenak, kolorezko lakak eta produktu kimiko hidrosentikorak. Eta hala hasi zen pinturaren arauak urratzen, uste baitzuen arau horiek eragozten zutela garai hartako bizitza behar bezala jasotzea. Jokabide horren adibide dugu *Kathreiner, goizean, zakila tente* (*Kathreiners Morgenlatte*); etxe-barne motel baten irudiaren gainean, eta geruzetan jarrita, ehun estanpatuak eta komunikabideetatik ateratako irudiak jarri zituen. Eta horrela sortu zuen metafora formal bat, estilo postmodernoa aurkitzen dugun ideien gainjartze konplexuari buruz.

Robert Rauschenberg (Port Arthur, Texas, 1925) AEBko gerraosteko arte mugimendu ia guztien aitzindaritzat jo izan da Espresionismo Abstraktuaren garaitik. 1962an, Andy Warholen estudioa egindako bisita baten ostean, eta serigrafia komertzialek ematen zituzten aukerak ezagututa, serigrafiak erabiltzen hasi zen pinturretara irudi errealek gehitzeko. *Gabarra* (*Barge*, 1962–63), ia hamar metro zabaleko mihise bat bere pintura serigrafiatu handiena da. Lan zuri, beltz eta gris itzel honek 79 pintura serigrafiatuetan behin eta berriz erabilitako gai eta irudi asko biltzen ditu, adibidez, hiri-ingurunea, espazioaren miaketa, garraiobideak eta artearen historiako maisulanak.

Lan honekin batera, bost performancez osatutako ikus-entzunezko bat erakusten da, 1963tik 1966ra bitarte eginak: *Pelikanoa* (*Pelican*, 1963), *II. Mapa-aretoa* (*Map Room II*, 1965), *Entrenamendua udaberrian* (*Spring Training*, 1965), *Linolioa* (*Linoleum*, 1966) eta *Emaitza irekia* (*Open Score*, 1966). Lan horietan artistak dantzaren, teknologiaren eta inprobisazioaren inguruko alderdiak ikertu zituen.

James Rosenquist (Grand Forks, Ipar Dakota, 1933) Pop Artearen aitzindarietako bat da. New Yorken 1960an publizitate-hesien pintore-lana uztean, publizitate horma-irudietako pinturan erabilitako teknika asko gehitu zituen bere artelanetara. Artistak publizitate-irudiak zatikatu eta berrosatu egiten zituen, pintura industrial erabiltzen zuen, eta formatu handian lan egiten. Horrela, nagusi zen Espresionismo Abstraktuaren aurka joan zen. Bere ibilbidean zehar, Rosenquisten obrak teknologia aurreratu eta fenomeno zientifikoei, zehazki espazio eta kosmosari buruzko lilura hezurmamitu du. Estatubatuarren lehenengo espazio-esplorazioen zirrarak inspiratu zuen *Flamenko kapsula* (*Flamingo Capsule*, 1970), *Apollo 1*ean hildako hiru astronautei omenaldia — 1967an, entrenamendu-saio batean halaberbeharrez sortutako sute batean hil ziren—. 26 metroko konposizioak “gune itxi bateko sutea” eta “espazio-ontzi osotik flotatzen dauden objektuak” iradokitzen ditu. Gorri-horien hondo baten gainean, honako elementu hauek ikus ditzakegu: AEBko banderaz apaindutako uniforme baten metalezko sare zimurtua, janari-poltsa bihurritu eta desitxuratu bat, eta arku bat osatzen duten puxika batzuk airean flotatzen. Askok gerraren aurkako obratzat hartzen dute.

Pop artearen oinarritzko figura delarik, **Andy Warhol**-ek (Pittsburgh, Pennsylvania, 1928) bere garaiko masakulturaren bandera hartu zuen. Aitzindaria izan zen serigrafia erabiltzen — erreproduzio mekanikoko teknika bat— bere obrak sortzeko, egunkari, publizitate eta iragarkietan aurkitzen zituen irudi inprimatuak baliatuz. *Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretsu* (*One Hundred and Fifty Multicolored Marylins*, 1979), zabalean hamar metro baino gehiago den mihisea sail honetako lan handienetako bat da eta artistaren pertsonaia ezagunenetako bat irudikatzen du. Marilyn Monroe 1962an, aktorearen heriotza-urtean, agertu zen lehenengoz Warholen obran. Geroztik, askotan egin zituen pintura serigrafiatuak, gazte hildako zinema-izarraren argazki berdina erabilita: ezpainak zabalik eta betazal lodiko begi xarmantak dituela, beti ere konfigurazio desberdinetan. Aktorearen aurpegia hainbeste aldiz errepikatzeak argi eta garbi adierazten du irudi horrek, edo beste edozeinek, erreproduzio-aukera mugagabea daukala. Aldi berean, irudi alderantzizatuak mamu itxurako eta ebokazioko aire bat dute, eta artistaren geroko lan askok (hala nola, itzala inspirazio-iturri hartutako pinturak, bere buruaren erretratuak eta gazezurak) ezaugarri duten atzera begirakoen sentsazioa uzten dute. Bere lehenbiziko *Marilyn* egin zuen garai berean, Andy Warholek *Proba zinematografikoak* (*Screen Tests*) bere filmazioari ekin zion, 16 milimetroetan egindako filmazio-sail bat, bakoitzak hiru minutu inguru irauten zuela. Bere obrarekin batera, erretratu bizidun horietako hamabi jarriko dira ikusgai. 1964tik 1966ra bitarte eginak, Warhol faktorian ohikoak ziren pertsonaiak agertzen dira, hala nola, Edie Sedgwick, Ultra Violet eta Nico; idazleak eta musikoak: John Cale, Lou Reed eta Susan Sontag; James Rosenquist eta Niki de Saint Phalle artistak, besteak beste; eta Dennis Hopper aktorea.

Begirada osoa eta bikaina artearen historiaren bilakaeran funtsezkoa izan den mugimendu bati eskainia. Era berean, mugimendu hori oinarritzkoa izan da gaur egun 70 artisten 124 obra dituen Guggenheim Bilbao Museoren Bildumaren bilakaeran.

Azaleko irudia:

Alex Katz (AEB, 1927)
Ada irribarrez (*Ada Smiles*), 1994
Olio-pintura liho gainean
228,6 x 167,6 cm
Guggenheim Bilbao Museoa

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila

tel: +34 944 35 90 08

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua)

Prentsa irudiak:
Guggenheim Bilbao Bildumaren aukeraketak III
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

103 Aretoa

1.

Alex Katz (AEB, 1927)

Ursula irribarrez II (Ursula Smiles II), 1993

Olio-pintura liho gainean

243,5 x 183 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



2.

Alex Katz (AEB, 1927)

Belinda irribarrez (Belinda Smiles), 1993

Olio-pintura liho gainean

243,8 x 182,9 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



3.

Alex Katz (AEB, 1927)

Yvonne irribarrez (Yvonne Smiles), 1994

Olio-pintura liho gainean

243,8 x 182,9 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



4.

Alex Katz (AEB, 1927)

Ahn irribarrez (Ahn Smiles), 1994

Olio-pintura liho gainean

243,8 x 182,9 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



5.

Alex Katz (AEB, 1927)

Alba irribarrez (Alba Smiles), 1994

Olio-pintura liho gainean

243,8 x 182,9 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



6.

Alex Katz (AEB, 1927)

Jessica irribarrez (Jessica Smiles), 1994

Olío-pintura liho gainea

243,8 x 182,9 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



7.

Alex Katz (AEB, 1927)

Ada irribarrez (Ada Smiles), 1994

Olío-pintura liho gainea

228,6 x 167,6 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



8.

Alex Katz (AEB, 1927)

Katryn irribarrez (Katryn Smiles), 1994

Olío-pintura liho gainea

243,8 x 182,9 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



9.

Alex Katz (AEB, 1927)

Karen irribarrez (Karen Smiles), 1994

Olío-pintura liho gainea

228,6 x 167,6 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



10.

Alex Katz (AEB, 1927)

Lauren irribarrez (Lauren Smiles), 1994

Olío-pintura liho gainea

228,6 x 167,6 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



11.

Alex Katz (AEB, 1927)

Lysa irribarrez (Lysa Smiles), 1994

Olío-pintura liho gainea

228,6 x 167,6 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Galería 105

12.

Jean-Michel Basquiat (AEB, 1960–1988)

Napoliko gizona (Man from Naples), 1982

Akrilikoa eta collagea zur gainea

122 x 244,5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



13.

Jean-Michel Basquiat (AEB, 1960–1988)

Moises eta egiptoarrak (Moses and the Egyptians), 1982

Akriliko eta olio-barra mihise gainean

185 x 137 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

Galerie Bruno Bischofberger-en dohaintza, Zurich



14.

Gilbert & George (Italia, 1943 eta Erresuma Batua, 1942)

Esnatzen (Waking), 1984

Argazki-konposaketa

363 x 1.111 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



15.

Sigmar Polke (Ekialdeko Alemania, gaur egun Polonia, 1941–Alemania, 2010)

Kathreiner, goizean, zakila tente (Kathreiners Morgenlatte), 1980

Akriliko, zura, baliabide anitzak, *collagea* markoarekin mihise eta ehun gainean

230 x 310 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



16.

Robert Rauschenberg (AEB, 1925- 2008)

Gabarra (Barge), 1962–63

Olio-pintura eta serigrafiatutako tinta mihise gainean

203 x 980 cm

Guggenheim Bilbao Museoa eta Solomon R. Guggenheim Museum, New York, honako hauek egindako diru-ekarpen osagarrieekin: Thomas H. Lee eta Ann Tenenbaum, Zuzendariaren Nazioarteko Batzorde eta Batzorde Beteazleko ondorengo kideak: Eli Broad, Elaine Turner Cooper, Ronnie Heyman, J. Tomilson Hill, Dakis Joannou, Barbara Lane, Robert Mnuchin, Peter Norton, Thomas Walther eta Ginny Williams; Ulla Dreyfus-Best, Norma and Joseph Saul Philanthropic Fund, Elizabeth Rea, Eli Broad, Dakis Joannou, Peter Norton, Peter Lawson-Johnston, Michael Wettach, Peter Littman, Tiqui Atencio, Bruce eta Janet Karatz eta Giulia Ghirardi Pagliai, 1997.



17.

James Rosenquist (AEB, 1933)

Flamenko kapsula (Flamingo Capsule), 1970

Olio-pintura mihise gainean eta aluminioz inpregnatutako Mylar-a

290 x 701 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



18.

Andy Warhol (AEB, 1928–1987)

Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretsu (One hundred and fifty Multi-colored Marilyns), 1979

Akriliko eta serigrafia mihise gainean

201 x 1055 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

